



## **Ekainaren 20ko 952/1997 EDren bigarren xedapen gehigarria (BOE 1997/7/5). Hondakinak murrizteko azterlana.**

Errege Dekretu hau indarrean sartu eta lau urte geroago, eta hortik aurrera lau urterik behin, hondakin arriskutsuen sortzaileek, hondakin-mota horiek murrizteko azterlana egin ondoren, dagokien Autonomia Erkidegoari bidaliko diote. Azterlan horretan ekoiztutako unitate bakoitzeko sortutako hondakinak zein neurritan murriztuko dituzten azalduko dute eta, ahal duten neurrian, hondakin arriskutsuak murrizteko konpromisoa hartuko dute.

### **NORK aurkeztu behar du “Hondakin arriskutsuak murrizteko azterlana”?**

Ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria, hondakin arriskutsuak murrizteko azterlana egiteko eta dagokien Autonomia Erkidegoari bidaltzeko beharra ezartzen duena, *hondakin arriskutsuen sortzaileei* buruzkoa da.

Organo honen arabera, ekainaren 20ko 952/1997 EDn ezarritako beharra ez zaie aplikatu behar hondakin arriskutsuen sortzaile txikiei; izan ere, aipatutako Errege Dekretua uztailaren 20ko EDren gerokoa da eta bertan ez da sortzaile txikiei buruzko aipamen zehatzik egiten. Beraz, sortzaile txikiko inskripzioa egin ez duten sortzaile txikiek eta sortzaileek bakarrik aurkeztu behar dute “Hondakin arriskutsuak murrizteko azterlana”.

Hori dela eta, enpresak ez du “Hondakin arriskutsuak murrizteko azterlana” aldizka aurkeztu behar, Autonomia Erkidegoan hondakinak sortzen dituen sortzaile txikia bada eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Sortzaile Txikien Erregistroan inskripzioa egin badu.

### **NOIZ aurkeztu behar da “Hondakin arriskutsuak murrizteko azterlana”?**

Ekainaren 20ko 952/1997 EDren bigarren xedapen gehigarrian “Hondakin arriskutsuak murrizteko azterlana” lau urterik behin aurkezteko beharra ezartzen da. Beraz, lehenengo azterlana aurkeztu behar dute xedapen hau indarrean sartu eta lau urte geroago, hau da, 2001eko uztailaren 6an beranduenez, xedapen hori indarrean sartzean martxan zeuden jarduerak. Halaber, xedapen hau indarrean sartu eta gero martxan jarritako jarduerak gauza bera egin behar dute; beraz, jarduera martxan jartzen den mementotik, lau urterik behin aurkeztu behar dute esandako azterlana.

Hortaz, Autonomia Erkidego honetan hondakinak sortzen dituzten enpresek aipatutako azterlana lau urterik behin aurkeztu behar dute, “Hondakin arriskutsuak sortzeko baimena” emateko den ebazpenean beste epe laburrago bat ezartzen ez bada. Horrela izanez gero esandako azterlana ebazpenean zehaztutako epe eta baldintzetan aurkeztuko da.

### **NOLA aurkeztu behar da “Hondakin arriskutsuak murrizteko azterlana”?**

Ekainaren 20ko 952/1997 EDren bigarren xedapen gehigarriak hondakin arriskutsuak murrizteko azterlanak aurkezteko beharra ezartzen du. Azterlan horietan ekoiztutako unitate bakoitzeko sortutako hondakinak zein neurritan murriztuko diren eta, ahal duten neurrian, hondakin arriskutsuak murrizteko konpromisoa hartuko dela azalduko da.



Beraz, azterlanaren helburua hondakin arriskutsuak **MURRIZTEA** da eta konpromiso hori hondakin arriskutsuen sortzaileek hartu behar dute. Horretarako, ekoiztutako unitate bakoitzeko helburuak finkatzeaz gain, hondakin arriskutsuak murrizteko neurriak zein epetan jarriko dituzte abian adieraziko dute.

Informazio zehatzagoa izateko, Sail honek, **IHOBERekin** batera, egindako **HONDAKIN ARRISKUTSUAK MURRIZTEKO AZTERLANA** deritzon ereduan emandako argibideak jarraituko dira.

## **HONDAKIN ARRISKUTSUAK MURRIZTEKO AZTELANEK IZAN BEHARREKO GUTXIENEN EDUKIERARI BURUZKO INFORMAZIOA**

### **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

- Helbide soziala eta zentroa identifikatzeko inprimakia zuzen beteta.
- **HELBURUAK** zehaztuko dira, baita helburu horiek betetzeko behar diren **NEURRIAK** eta **EPEAK** ere, informazio honekin batera doan gidoian emandako jarraibideen arabera.

### **ARGIBIDE OROKORRAK**

- Enpresak, hondakinak murrizteko helburuak zehazterakoan, aintzat hartuko du ea helburu horiek bideragarriak eta egingarriak izango diren, enpresan dituzten teknologiak aztertuta, eta enpresak benetan aplikatu ahal izango dituen aipatutako helburuak.
- Hori dela eta, Murrizteko Azterlana egin ahal izateko, sortzen den hondakin bakoitza eta hondakin hori murrizteko dauden aukerak aldeztu aurretik aztertu behar izan ditugu.

Hondakinak murrizteko erak ugariak izan daitezke: aldaketa teknologiko garrantzitsuak, lanerako jardunbide egokiak erabiltzea...

- a. Lehengaiak aurrezteko neurriak (hobeto erabili), adibidez, olioaren eta taladrinen jarioak jasotzeko erretiluak erabiltzea eta isuritakoa jasotzeko erretiluak garbi mantentzea.
- b. Lehengaiak aldatzea hondakin-kopurua edota arriskugarritasuna murrizteko.
- c. Prozesuan aldaketa teknologikoak egitea: teknologiak garbiagoak erabili.
- d. Bai prozesuan bai enpresan, antolaketa-aldaketak egitea, adibidez, taladrinen mantenimendua hobetzea beren iraupena luzatzeko.
- e. Barneko kontrola eta ikuskapena hobetu, adibidez, bainu elektrolitikoak gehiago kontrolatu erabilbizitza luzatzeko.
- f. Prozesuan bertan hondakinak berrerabili.
- g. In situ berrerabili lehen hondakinak ziren gaiak .



- h. In situ berreskuratzeko beste modu batzuk.
- i. Hondakinak kudeatuko dituen enpresa aldatu, adibidez, hondakinak eliminazio-lanak egiten dituen kudeatzaile bati bidali beharrean berreskuratze-lanak egiten dituen beste bati bidali.

Hondakinak murrizteko dauden aukerei buruzko informazioa lortzeko, komenigarria izango da bai enpresako langileen ezaguera eta esperientzia erabiltzea, bai kanpoko informazio-iturrietara jotzea.

Informazio-iturrien artean honako hauek azpimarra ditzakegu:

- Monografia sektorialak (Liburu Zuriak) eta garbi ekoizteko neurrien adibideei buruzko argitalpenak, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailari atxikita dagoen Ihobe, S.A. elkarte publikoak egindakoak. Informazio hori doan eskura daiteke PDF formatuan Elkarte Publikoaren web orrian ([www.ihobe.net](http://www.ihobe.net)).
  - Hondakinak eta horiek murrizteko arloko beste argitalpen batzuk.
  - Produktu kimikoez edota ekipoez hornitzen duen enpresa bera.
- Hondakinak murrizteko azterlanean islatuko da zeintzuk diren enpresak, ahal duen heinean, har ditzakeen neurriak sortzen dituen hondakin arriskutsuak murrizteko. Beraz, informazioa eskuratu ondoren, aztertu, ebaluatu eta enpresan bertan aplikatu behar da benetan dauden aukerak lortu ahal izateko.
  - Azpimarragarria da hondakinak sortzen diren lekuetan bertan lan egiten duten langileen ekarpenak kontuan hartzea oso garrantzitsua dela, batez ere jardunbide egokiak ezartzeko.  
Hona hemen iradokizun batzuk:
    - Hondakinak murrizteko azterlanean jasotako neurriei buruzko azterlan ekonomikoa bat egitea.
    - Alde onak eta txarrak ondo aztertzea.
    - Posible bada kanpoko erreferentziaren batekin alderatzea.
  - Hondakinak murrizteko azterlana egiteko honako hau da kontuan hartu beharreko oinarritzko informazioa: Hondakin Arriskutsuak Sortzeko Baimena izapidetzeko aurkeztutako informazioa, Hondakin Arriskutsuen Urteko Adierazpena eta azken ekitaldian kudeatutako Hondakin Arriskutsuen Jarraipen eta Kontrolerako dokumentuak.
  - “Hondakin arriskutsuak murrizteko azterlanaren gutxieneko edukiera” izeneko atala sortu da edukiera-gidoi bezala, eta ez jarraitzeko txantilo bezala. Beraz, atal horretan zehaztutako informazio guztia duten azterlanak onartuko dira. Zentzu horretan, adibidez, Servicio Ekoscan izenekoan egindako txostenak Sailburuordetza honetan aurkezteko moduko hondakinak murrizteko azterlantzat hartu ahal izango dira, baldin eta, txosten horiek egitean, arreta berezia eskaini badiete hondakin arriskutsuak sortu eta murrizteko alderdiei.

LURRALDE ANTOLAMENDU  
ETA INGURUMEN SAILADEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN  
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

Ingurumen Sailburuordetza

Viceconsejería de Medio Ambiente

**HONDAKIN ARRISKUTSUAK MURRIZTEKO AZTERLANA**

ESTUDIO DE MINIMIZACIÓN DE RESIDUOS PELIGROSOS

Hondakin arriskutsuak murrizteko helburuak lortzeko arduraduna  
Responsable de Consecución de Objetivos de Minimización de Residuos Peligrosos

Abizenak eta izena / Apellidos, Nombre

NAN / DNI

**Enpresaren datuak / Datos de la empresa**

Izen soziala / Razón Social

IFZ edo IFK / NIF ó CIF

Helbide soziala (kalea, zk,...) / Razón social (calle, número)

Herria / Localidad - Udalerria / Municipio

Posta Kodea / Código Postal

Telefono zenb./ N° Teléfono

Lurralde Historikoa / Territorio Histórico

Fax zenb. / N° Fax

EAEn enpresak dituen lantegi kopurua (sortzaileak, administratiboak, ...)/  
Número total de centros de la empresa en la C.A.P.V. (productivos, administrativos, ...)

Posta-kutxa / Apdo. correos

**Hondakin arriskutsuak sortzen dituen lantegiaren datuak / Datos del centro productor de residuos peligrosos**

Lantegiaren izena / Denominación del centro de trabajo

IEIZ / NIRI (N°Inscrip. Registro Industria)

Lantegiaren helbidea (kalea, zk,...) / Domicilio del centro de trabajo (calle, número)

HAREN Sortzaile Baimenaren-zk.  
N° de Autorización Productor de RPs

Herria / Localidad - Udalerria / Municipio

Posta Kodea /  
Código Postal

Telefono zenb. / N° Teléfono

Fax zenb. / N° Fax

Lurralde Historikoa / Territorio Histórico

Posta elektronikoa / Correo electrónico

Jardueraren deskribapena / Descripción de la actividad

EIES / CNAE

Langile koporua  
N° de empleados

Ingurumen Sailburuordetzan honakoa aurkezten du:

 Hondakin Arriskutsuak Murrizteko Azterlana, 952/1997 Errege  
Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren arabera.

Presenta ante la Viceconsejería de Medio Ambiente:

 Estudio de Minimización de Residuos Peligrosos conforme a la  
disposición adicional segunda del Real Decreto 952/1997

.....(e)n, 20.....ko .....(a)ren .....a  
Izenpea

En....., a..... de..... de 20.....  
Firma

BIDALI / AURKEZTU AZTERLAN hau hurrengo helbide honetara / REMITA / ENTREGA este ESTUDIO en la siguiente dirección:

Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Zerbitzua / Servicio de Residuos Tóxicos y Peligrosos  
Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz (ARABA)

Este ESTUDIO se puede PRESENTAR ante la Viceconsejería de Medio Ambiente o ante cualquier Delegación, en las siguientes direcciones:  
AZTERLAN hau Ingurumen Sailburuordetzan edo edozein Lurralde Ordezkaritzatan AURKEZ daiteke, hurrengo helbide hauetan:

Gran Vía, 85, 6º- 8º, 48011 Bilbao (BIZKAIA)  
Andia, 13, 20004 Donostia-SanSebastian (GIPUZKOA)

ZIGILATUTAKO KOPIA eska daiteke aurkezten den lekuan / Se puede solicitar COPIA SELLADA donde se presente



## A HONDAKIN ARRISKUTSUEN MOTEN ETA KOPURUEN LABURPENA

Oharra: 952/1997 EDren bigarren xedapen gehigarrian zehazten den bezala, Hondakinak Murrizteko Azterlanak ekoiztutako unitate bakoitzeko murrizketa zehaztuko du.

Urtea	Ekoizpen bolumena <sup>(1)</sup>
<sup>(2)</sup>	
<sup>(3)</sup>	

- (1) Zehaztu kontuan hartutako ekoizpenaren kantitatea eta unitatea (produktuaren kopurua,- adibidez ekoiztutako tonak edo unitateak – edo zerbitzuak, adibidez sortutako Kwh, arreta eman zaien bezero kopurua.....)
- (2) Hasierako egoeratzat hartutako urtea. Ikusi hurrengo taularen b) oin-oharra.
- (3) Hondakin Arriskutsuen Azterlana egiteko erabilitako datuen urtea. Ikusi hurrengo taularen c) oin-oharra.

Hondakinaren izena <sup>a)</sup>	Kopurua/urtea Urtea <sup>(2)</sup> (Hasierako egoera <sup>b)</sup> )	Kopurua/urtea Urtea <sup>(2)</sup> (Egungo egoera <sup>c)</sup> )	Azken Kudeaketa (* )
HA <sub>1</sub>	Kg HA <sub>1</sub> / urtea		
	Kg HA <sub>1</sub> /ekoiztutako unitateak		
HA <sub>2</sub>	Kg HA <sub>2</sub> / urtea		
	Kg HA <sub>2</sub> / ekoiztutako unitateak		
	Kg HA <sub>5</sub> / urtea		
	Kg HA <sub>5</sub> / ekoiztutako unitateak		
<b>HA guztira</b>	<b>HA Kg guztira / urtea</b>		% ___ gehiago gutxiago
	<b>HA Kg guztira / ekoiztutako unitateak</b>		% ___ gehiago gutxiago

\*Adibidez, ea auto-kudeaketa den, edo zer eta non egingo den azken kudeaketa, edo interesgarri deritzen beste ohar batzuk.

- a. Hondakin arriskutsuen sortzaile baimenean emandako kodeak eta izenak erabili behar dira edo, izan ezean, baimen hori izapidetzeko aurkeztutako informazioan agertzen direnak (baimena eskatzeko formularioaren B.1 atalaren 1. puntua). Hondakin Arriskutsuen Sortzaile Baimena izapidetzeko aurkeztutako informazioan aipatzen diren hondakin guztiak agertu behar dira, baita izapidetzetik aurrera sortu ahal izan diren hondakin guztiak ere. Koadro honetan zentroko hondakin arriskutsuen murrizketaren eboluzio orokorra adieraziko da.
- b. Hasierako egoeratzat honako hau hartuko da:
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzan aurkeztutako Hondakinak Murrizteko lehenengo Azterlanaren kasuan, hasierako egoeratzat hartuko dugu



Hondakin Arriskutsuak Sortzeko Baimena izapidetzeko informazioan jasotako datuak (izapidetzea horretarako formularioaren B.1 atalaren 10. puntuan agertzen den kopuruaren datua).

- Hondakinak Murrizteko hurrengo Azterlanetan, abiapuntu egoeratzat hartuko da Ingurumen Sailburuordetzan aurkeztutako azken azterlanaren *Egungo egoera* atalean jasotako datuak.
- c. *Egungo egoera* deskribatzeko, azken urtean hondakin arriskutsuen kontrolerako eta jarraipenerako kudeatutako dokumentuak eta Hondakin Arriskutsuen azken urteko deklarazioan jasotako datuak erabiltzea gomendatzen da.

#### OHARRAK:

Atal honetan hurrengo aipatu behar da:

- Hondakin Arriskutsuak Sortzeko Baimena izapidetzeko aurkeztutako informazioan, edo bere kasuan, Ingurumeneko sailburuordetzan aurkeztutako hondakinak murrizteko azken azterlanean gertatutako aldaketak. Hau da, prozesuan sortutako hondakin-mota edo kopurua aldarazi dituzten eragileak.
- Hondakin arriskutsuak ohikoa ez den kopuruan sortzeko eragina izan duten faktoreak (adib. olio hidraulikoa edo beste edozein hondakin-mota kopuru handiagoan sortu da makineria zaharkitua kendu izanagatik).

#### **B** HONDAKIN ARRISKUTSUAK MURRIZTEKO HARTUTAKO NEURRIAK

Sortutako hondakin arriskutsu desberdinak murrizteko hartutako neurriak nahiko zehatz deskribatuko dira. Horretarako, aldaketak ulertzeko informazio garrantzitsua jasotzen duen ikerlana edota dokumentazioa erantsiko da, gehigarri gisa.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzan aurkeztutako Hondakinak Murrizteko azken Azterlanean aurreikusitako helburuak zenbateraino bete diren islatuko da. (Hondakinak murrizteko lehenengo azterlanean ez da beharrezkoa).

Hondakinaren izena eta urtean sortutako kopurua	Murrizketarako neurriak <sup>d)</sup>	Murrizketarako aurreikusitako helburua <sup>e)</sup>	Helburuaren bete-maila <sup>f)</sup>
HA <sub>1</sub> (---Kg/ ekoiztutako unitateak)	- Lehenengo neurria - Bigarren neurria -	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)
HA <sub>2</sub> (---Kg/ ekoiztutako unitateak)	- Lehenengo neurria - Bigarren neurria -	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)
HA <sub>3</sub> / ekoiztutako unitateak)	- Lehenengo neurria - Bigarren neurria	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)



	-		
HA4 (---Kg/ ekoiztutako unitateak)	- Lehenengo neurria - Bigarren neurria -	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)
<b>.....Kg guztira / ekoiztutako unitateak</b>	<b>GUZTIRA=</b>	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)

- d. Labur deskribatu, hartutako neurrien artean, zeintzuk izan duten eragina hondakin arriskutsu horren murrizketan.
- e. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzan aurkeztutako Hondakinak Murrizteko azken Azterlanean aurreikusitakoa. (Hondakinak murrizteko lehenengo azterlanean ez da beharrezkoa).
- f. Helburuak zenbateraino bete diren jakiteko, Hondakinak Murrizteko azken Azterlanean aurreikusitako helburua eta egungo egoerako datuak alderatuko ditugu. (Hondakinak murrizteko lehenengo azterlanean ez da beharrezkoa).

## OHARRAK:

Atal honetan honako hau aipatu behar da:

- Hondakinak Murrizteko azken Azterlanean hartu ez diren aurreikusitako neurriak. Kasu horretan zehaztu behar da zergatik ez diren ezarri.

HONDAKIN ARRISKUTSUAK MURRIZTEKO AURREIKUSITAKO NEURRIAK

Atal honen barruan:

- Hartuko diren neurriak nahiko zehatz deskribatuko dira eta neurri horiek justifikatzeko/ulertzeko beharrezkoak diren ikerlanak edota dokumentazioa erantsiko da.
- Neurri bakoitzarekin zer-nolako murrizketa lortu nahi den adieraziko da edo, behintzat, hondakin arriskutsuak murrizteko helburu orokorra, ekoiztutako unitate bakoitzeko.



- Era berean, adieraziko da neurriko horiek ezartzeko zeintzuk diren epeak eta horretarako arduradunek enpresan zein kargu duten.

Hondakinaren izena eta urtean sortutako kopurua	Murrizketarako neurriak <sup>g)</sup>	Murrizketarako aurreikusitako helburua <sup>h)</sup>	Arduraduna (Kargua)	Neurria ezartzeko aurreikusitako epea <sup>i)</sup>
HA <sub>1</sub> (---Kg/ ekoiztutako unitateak)	- Lehenengo neurria - Bigarren neurria -	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)		
HA <sub>2</sub> (---Kg/ ekoiztutako unitateak)		---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)		
HA <sub>3</sub> (---Kg/ ekoiztutako unitateak)		---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)		
HA <sub>4</sub> (---Kg/ ekoiztutako unitateak)		---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)		
<b>.....Kg guztira / ekoiztutako unitateak</b>	<b>MURRIZKETAREN HELBURU OROKORRA=</b>	---% (---Kg/ ekoiztutako unitateak)		

- g. Hartuko ditugun neurrien deskribapen laburra.
- h. Hondakin arriskutsu bakoitzerako aurreikusitako dugun murrizketarako helburua ezartzeko kontutan hartu behar ditugu benetan dauden aukerak ( bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa).
- i. Neurriak betearazteko epea egokituko da ezarriko diren neurri-motetara.